

PILOTA

Giro aparta Mungian
Palaren Munduko
Eguna aitzaki

MUNGIA

Arrakasta handiz egin zen igandean Palaren Munduko Eguna, Mungiako frontoian eta ondoren egindako bazkariak izandako giro aparta nabarmendu beharra dagoela.

Kiko Caballerok goiz partean Kultur Etxean eskainitako mahai inguruaren ondotik, Mungiako frontoia hartu zuen protagonismoa. Eta bertan partidu estelar ikusgarria eskaini zuten Elgezabal-Jauregi eta Lizardi-Arzelus bikoteek. Azkenek irabazi zuten partidua 30-21.

Ondorengo bazkari-pasadan Euskal Herri osotik eta Espainiako hainbat lekutatik propio etorritako palista ohiek elkar ikusi zuten eta hirurehun pertsonatik gora bildu ziren.

Karteldegia

Gaurko partiduak

DEPORTIVO. 16.30. Peluaga - Arteagoitia / Garma - Alzibar. Alustiza - Otero / Iriondo - Lizardi. Sanjurjo - Sanchez / Agirre - Lekue - Maruri. **Osteguneko partiduak**
GALARRETA. 16.00. Egialde - Imaz / Zeberio - Urretabizkaia II. Aseginolaza I - Agerre / Goriz - Aizpuru. M. Lekunberri - Ezkurdia / Altuna - Barrenetxea. Urkia - Iturralde / Ollo - Ulzurrun.

EUSKAL. 16.00. Larrañaga - Zandio / Ezkurra - Ekiza. Arregi - Zubeldia / Salaberria - Mujika II. Aseginolaza II - Saldias / Noain - Etxeberria. Rekalde - Astrain / Lezea - Auzmendi.

ESKUBALOIA

Liga ahaztu eta Errekopa da
orain Elgorriagaren helburua

Artalekuko garaipenarekin Barcelonak erabakita utzi zuen Liga igandean

Barcelonak igandean Artalekun lortu zuen 20-25eko garaipenak erabakita utzi du aurtengo Liga. Falta diren hiru ihardunaldietan garaipen bakar bat eskuratzea nahikoa dute kataluniarrek. Elgorriaga Bidasoak bigarren posturako lehiatu beharko du Santanderreko Teka taldearekin.

MIKEL ARRIETA / DONOSTIA

Hori baino garrantzitsuagoa ordea datorren astelehenean jokatu behar duten Errekopako finaleko irtulerako partidua da. Oraingoan Liga ahaztu eta Errekopan zentratu behar dute irundarrek. Aste honetan eraso soko jokoa landu beharko dute, Barcelonaren aurkako partiduan hutsuneak erakutsi bait zituzten.

Elgorriaga Bidasoan dagoenetik inoiz jokatu duen partidu kaxkarrena egin zuen Wentak igandean. Poloniarrek gol bakar bat ere ez zuen sartu. Taldeak nabarmen nabaritu zuen hori. Lehen zatian Xabier Mikel usurbildarrak hartu zuen Wenta «ordezkatzeko» lana. Honi esker irundarrak 13-12ko emaitzaz joan ziren atsedenaldira.

ERASOKO
JOKOA
HOBETU

Bigarren zatian ordea, Barcelona taldeko jokalaririk onena izan zen Portnerrek bere horretan jarraitzen zuen bitartean, irundarrek behera egin zuten erasoko jokaldietan. Wentak hasieran bezala jarraitzen



Xabier Mikelek bost gol lortu bazituen, Wenta hutsean geratu zen. VILLAGRAN

zuen eta gainontzekoez ez zuten Ricoren aurrean asmatzen. Bigarren zati honetan irundarrak hogeita minutu egon ziren golik sartu gabe.

Bigarren zatian zazpi gol besterik ez zituzten sartu etxekoek. Golerako gaitasun kaskar horrekin irundarrek ezin izan zuten Barcelona gainditu, eta are okerrago, erasoan hutsune handiak erakutsi zituzten.

Aste honetan zehar zuzendu beharko ditu hutsune horiek Juan-

txo Villarreak. Wentari defentsa zorrotzak ezartzen dizkionenean beste jokalariek bideratu behar dituzte erasoko jokaldiak.

Datorren astelehenean Milbertshofen talde alemaniarren aurkako partiduan defentsa gogorra jasan beharko dute irundarrek, eta hori gainditzeko era aurkitu beharko dute.

Irunen lortu zuten bost goleko abantailak nahikoa izan behar du.

RUGBYA

Indartsuenek aurrera darraite
Frantziako txapelketa nagusian

KOLDO ALDUNTZIN / MIARRITZE

Beziars-Begles eta Racing Paris-Toulouse izango dira Frantziako Ligako final erdietako partiduak, pronostikoak bete eta indartsuen igarritzen ziren taldeek final laurdenetako kanporaketak gainditzean. Begles 19-8 gailendu zitzaion Tarbesi, Beziars 18-6 Nimesi, Toulouse 24-6 Narboneri eta Racing Paris 18-6 Dax taldeari.

Miarritzeko Agilera rugby zelaian tentsioa izan zen protagonista nagusia, Racing Paris eta Dax taldeen arteko norgehiagokan. Estraineko sarea eta bi taldeetako aurrelari multzoak muturjoka hastea bat izan ziren. Dax taldekoak arras bortitzak agertu ziren jokoan, rugbyari inolako mesederik egin gabe. Hamar

minutu gogorren ondotik Daxekoen orpokatzaila kanporatua izan zen eta barealdia etorri zen Agilera zelaira.

JOKALARIAK
MAILA
GORENEKOAK

Neurketa bikaina espero zen Miarritzeko final erdietarako txartela jokoan. Racing taldeetik J.B. Lafond, Messnel, Charvet, Pouyau, Cabannes, Deslandes, Blond eta Tachdjian, eta Daxetik Lacroix, Lescarbura, Rodriguez, Cazenave eta O. Roumat, maila goreneko jokalariek genituen aurrez aurre. Xirimiriak eta haize boladek kalte egin zioten ordea ikuskizunari, baloi labainkorra kontrolagaitza bihurtu bait zen; partidu osoan zehar aurrelariaren jokoa eta ostikadak izan ziren nagusi. Rodriguezen gidaritzapean defentsa bikaina

erakutsi zuen Dax taldeak, eta haizea lagun, 3-6 aurretik iritsi ziren atsedenaldira.

Alboko sakeetan bi metrotik gorako bospasei gizon aurkitzen ziren elkarren aurrean, lehia parekatua eskainiz. Mele bilduetan aldiz, paristarrak nagusi agertu ziren, gizon bat gehiago zutela aprobetxatuz.

Bigarren zatian, Racingek haizea alde zuela, baloia luze jokatu zuten Parisekoek, entseiu bat eta hainbat zigor kolpe lortuz.

Neurketa amaitzeko bospasei minutu falta zirela berriz ere ukabilkadak eta joko bortitza hasi ziren, eta partidua erabakita zegoela ikusirik, 18-6 markagailuan, epaileak alde aurretik aldagaitara bidali zituen bi taldeetako jokalariek, partiduari amaiera emanez.

FLASHAK

■ **VILARIÑOK** nagusitasun osoz irabazi zuen Jaizkibelgo Igoera. Errepidearen egoera txarra zela eta D'Arbellay eta Aitor Zabaleta pilotuek ezin izan zuten Igoera bukatu. Marka gainditzeko ezinezkoa izan bazen ere, Donostiarrak puntu asko eskuratu zituen Europako Txapelketarako eta bere Lola Repsol egoera oso onean dagoela erakutsi zuen.

■ **ARRETXE-ALUSTIZA** pilotariek 22-15eko emaitzaz irabazi zieten Unanue-Galarzari Eibarren. Arretxek maitasun handia erakutsi zuen eta bera izan zen partiduko protagonista nagusia. Alustizaren laguntzarekin ez zuten arazorik izan Galartza txapeladunari irabazteko.

■ **ALISTAK** bere eguna ospatu zuten Mungian. Inguruko pilotari, pilotari ohi eta zale guztiek festa ikusgarri bat ospatu zuten. Inaki San Juan Eusko Jaurlaritzako kirol zuzendariak, eta Kiko Caballero Eusko Federakuntzako lehen-dakariak pilotaren alde borrokatu behar dela azpimarratu zuten.

■ **BALLESTEROS** bigarren postuan gelditu zen Espainiako Irekian. Desenpaterako jokatu zen zazpigarren zuloan Eduardo Romero argentinarra inposatu zen. Aurreko egunean Ballesterosek lortutako abantailak ez zion askorako balio izan. Ordu t'erdian irabazi zuen eta denbora guztian bi golf jokalariek norgehiagoka aritu ziren.

■ **ARSENAL** futbol taldea aurtengo Liga Ingleseko Txapeladuna da. Azken partidua Coventry Cityren kontra jokatu zuen eta 6-leko emaitzak talde onena dela erakutsi zuen. Liverpooli berriz ez zion asko balio izan Tottenham kontra 2-0 irabazteak. Bigarren postuarekin konformatu behar izan zuen talde gorritxoak.

■ **AYRTON** Senna pilotuak ez zuen kupidarik izan Montecarlo. Aurtengo Munduko Txapelketako laugarren garaipena lortu du eta Montecarlo berriz bere hirugarrena. Alain Prost pilotuari 29 puntuko aldea ateratzen dio sailkapen nagusian. McLaren MP4/6 Honda berriro ere Ferrariren aurretik jarri da.

■ **MARIA LUISA** Irizar korrikalariak historia guztian 20 kilometrotan lortu den bigarren marka onena egin zuen Adidas Zirkuituan. Bere marka ere 59 segundutan jaitsi zuen andoaindarrak. Gizonezkoen kategorian Moralesek iragarpen guztiak hautsi zituen Atienza faboritok atzean utziz.

■ **GABRIELA** Sabatini tenis-lariak Italiako Nazioarteko Txapelketan bi set besterik ez zituen behar izan Monica Seles atzean uzteko. Italiako ikusle guztiek oso begikoa dute Sabatini eta animoak ez zitzaizkion falta izan.

HONDARRIBIKO
UDALA

IRAGARKIA

1991ko maiatzaren 7ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, 84 zenbakia duenean, ondoren aipatzen diren salmentak 1991ko udaldirako adjudikatzeari buruzko iragarkia argitaratu zen:

Izozki salmenta.

Otarke eta edarien salmenta.

Patata frijitu eta barkilo salmenta.

Egunkari eta aldizkari salmenta.

Txurro salmenta.

Proposamenak aurkezteko epea 1991ko maiatzaren 30eko 13.00 orduetan amaituko da, eta beharrezkoa izanez gero geratu egingo dira, baldin eta baldintza ekonomiko-administratiboen pleguen aurka erreklamazioak balego.

Hondarribi, 1991ko maiatzaren 10ean
ALKATEA